

TXANBELA

A.

BOSTEKO

Hitzak: Juanjo Uribe.
Musika: J.M. Beltran.

Jaun-andreak albotik datorren ahots liraina, edonor liluratu eta hunkitzeko haina, Pasaiko arrantzale baten alaba da baina, guk ez dugu oraindik legatzik jan halajaina.

Orioko seme hau taldeko Xakilixuta, antena beti erne ipar aldera piztuta, horrez gain pastelero ofizioz jabetuta, beti daukagu neska politzez inguratuta.

Talde honen sortzaile aizu, zaitugenez gero, agian errespeto apur bat duzu espero, baina hain zara gizon herritsu eta saltsero, ezin egongo gara zure mende egunero.

Orain gaztena nor den dagokigu bereiztea, heiburutzat ahalik eta gehien ikastea, baina komeni zaigu zuei jakin araztea, atsegin dula neska gazteekin amestea. Tanborradetan eta kaldererotan afana, donostiarrak baina errez moskeatzen dana, gogoko du musika baita ere patxarana, horra zein talde txukun ta xelebre garana.

ANTZINAKO MINUE

XVIII - XIX mendeetan tristulariek erabiltzen zuten errepertorioetik jasoa. Estilo zaharrean edo barrokoan ematen zen doinua da.

Tristulari



MARZO-ABRIL, 1928

Antzineko tristularia



JOSE «ZECA» AFONSOREN ZITAN

Hitzak: Agiña.
Musika: Jose Afonso-Herrikoaia (Portugal)

Agur, Jose «Zeca» Afonso, hemen gaituk hik jarritako zitan. Hire kantua eman hien apiril batez, Portugalen iraultza egin behar omen zutenei.

Orain, plastiko yankia bazkatzen diate portugesez ere. Hator gurekin, Jose Afonso, ez haugu eta mixerian hiltzen utziko.

«Grandola Vila Morena» iraultzaren amets zena gaur hire faltaren pena.

Afonso, «vinhan mais cinco» saldukeriarik gabe herriaren alde tinko.

Apirilez krabeliña iraillez antzutu zen abenduz ihartze mina.

Ginea eta Angola fado eta vinho verdez Afrikar zarren odola.

Demokratek errespostaso fazistekin elkartuta hil haute Zeca Afonso.

Postmodernoen malakoak mespretxatu hinduteneen auzhen minik gabekoak.

Kantuz jarri diguk zita puntuan etorri gaituk alukeriak utzita.

Mila lagun ekutuan jarraitzen gaituk kanta herrikoiaeren gudan.

LEHEN HORTZA

Hitzak: Agiña.
Musika: Herrikoaia. (Juan Aiesta Bediako dultzainariaren errepertorioetik hartua).

Zein polit sortu den hortzal! Erakuts, ez zaitetz lotsa. Lore xuriz erne zainu oinaze latz ta mingotsa.

Bai kixka-kixka gogorra. Balioko dizu, horra: hortzakadaz iristeko oihuz ezin dena logra.

Zu, gurasoen ekia irrifartsu aurpegia, alaitu zure jolasez ukitzen duzun tokia.

Helduko dira haginak, Ez dira fini saminak.

Minez ere zoriona sortzen egin ahaleginak.

BURU-TXURI

Hitzak-Musika Orioko Jose Peñari ikasiak.
Hitzek tzantzetako joku erraza osatzen dute, arin-arin dantzarako doinu bat hornituz.

Buru-txuri, buru-txuri
Buru-txuri burutxo, buru-txuri burutxo
Buru-txuri burutxo, buru txoriburu

SAGARDOTIK GINTONIK'ERA

Hitzak: Jon Lopategi
Musika: J. M. Beltran

Lehenengo uniformeak, traje ta korbata. Orain larruzko txaketarekin, bakero praka.

Ardo ta sagardoa, elari pobreak. Gin tonikaren egarri dira, oraingo progreak.

Ondo ormitu gara, ille ta bizarez. Modak agintzen duela eta, mozteko alferrez.

«Dekehastio» eta, txika «yatehales». Erderatiko hitz pottoloak, euskeraren «kale».

Lanetan ari dena, norbaiten esklabo. Gazteak nora joan behar du, lanik ez ba dago.

B.

DANTZAKIA

Etzarri Aranatzeko Karasatorre gaiteroei ikasia da.

DANTZAKIA, lau dantzez, bi zortzi-koz, fandango, arin-arin eta kalejira batez osaturiko dantza-bilduma herrikoa da.

Tzanbela aurreko lau dantzak eskeintzen ditu.



Karasatorre aita semeak (Iruia 1924)

GOIZALDEAN ARRASTIA

Hitzak: Agiña
Musika: Herrikoaia. Zuberoako Lakarri herriaren jasoa.

Lo zegoen Oorereta lo Gaztaino. Argirik ez eta euriz nigar-laino. Gorputz bat ametsetatik ail, lurreraino.

Hemen mila gautako amets beltza: herra zorrotzez etxera zakur hotsa. Etsiaren hortzakadan ail, heriotza.

Buru eta esku finak apurtuta, porlan kupidagabearen haiz hustuta, Euskadiren maitasunez ail, lehertuta.

Dantzaria nolaz hoa hilerrira? Hire ihesia edo lagunaren distira zer daramak Arrastia ail, lur azpira.

HIRUGARREN BOLANT DANTZA

Behere-Nafarroako Ondalorran, Bernardo Lapeireri ikasia. M. A. Sagasetaren «Luzaidako Dantza» liburutik jasoa.



Behere-Nafarroako dantzariak

BALTZERANA IZAN ARREN

Hitzak: Lehen bertsoa herrikoaia da. Ondorengok Jon Sarasaren eskutik datorrigu. Musika: Herrikoaia. (Aramaioua-Araba)

Baltzerana izan arren grazia baduzu sekulan kortejoa faltuko ez dezue. Txikitxo polit hori zeu nere lastana kateatu ninduzun libreza nintzala.

Maritxu nora zoaz eder galant hori burua tente duzu ez zaitetz erori. Burua tente duzu ta ez dago gaizki ederra zarelako izango da noski.

Txit ederra zarela askok esaten du askoz ederrago jakin ez bazenduz. Dakiena ez dago ezaren penatan ez dadia gelditu luzimendu faltan.

Begiari gorputza gorputzari prenda besteen inbidia diruz erosten da. Besteen inbidia erosten da diruz ahal duenak batez ta ahal duenak hiruz.

HABANERA

M. Martinez de Lecena tristulari zena- ren errepertoriooko plaza dantza da.



Orain dela heun urte.